

GIL 116 Añanako diapiroa



Triaseko buztin eta igeltsuen gainean eratutako lubakiak.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42° 48' 7,99" N

Long.: 2° 59' 9,22" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 401.153,51 m

Y: 4.738.852,07 m



Nola iritsi

Diapiroa zenbait puntutatik ikus daiteke. Nolanahi ere, egituraren geometriaren ideia bat egiteko, komeni da bera zeharkatzen duten bideetako batean barrena ibiltzea. A-2622 errepidean zehar Paul eta Gesaltza Añana herrien artean egin daitezkeen behaketen deskribapen labur bat egingo da puntu honetan, hura baita iristeko tokirik errazena.



Añanako diapiroko ofita-blokeak.

GILaren deskribapen laburra

Gesaltza Añanako diapiroa 11 x 6 km-ko egitura elipsoidal bat da. Trias Keuperreko materialek 5.000 metrotik gorako serie mesozoiko eta tertziarioetan zehar egindako igoera halozinetikoak sortu du diapiroa, antza.

Haren barnean, Triaseko buztin eta igeltsuak daude, eskuarki lubaki-forman higituak, baina badira adin horretako zenbait ofita-masa ere, bai eta zeharkatutako materialez osatutako kapelaren arrasto ugari ere; haien artean, Jurasikoko karniolak eta Tertziarioko material detritiko batzuk nabarmentzen dira. Material horiek gogorragoak dira, eta horregatik du erliebe malkartsua diapiroaren barnealdeak.

Diapiroaren kanpoaldeetan, igeltsuak oso deformatuta ageri dira, eta material horiei eragin dien deformazioa adierazten duten egitura ugari nabari dira. Oro har, egitura mota horretan ohikoa den haustura erradialen sare bat ere ikus daiteke.

Iparraldeko ertza konglomeratuen gailurrek zedarritzen dute; haien oinean, kolubioi-metakini lodiak pilatzen dira. Antzina, harrobietan ustiatu ziren.

Behatzeko punturik onena

Tejera mendatetik edo Gesaltza Añana herritik bertatik.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 78, GIL 130, GIL 142, GIL 143.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 7, GIL 57, GIL 142, GIL 143.



Diapiroa iparraldetik mugatzen duen konglomeratu-paketearen ikuspegia.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala			●	
	Estratigrafikoa			●	
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala: Añanako gatzagak diapiroaren barnean daude.					
Oharrak:					

Bibliografia espezifikoa

- EGUILUZ, L.; LLANOS, H.; URIBE-ECHEBARRIA, P.; CAMARA, F.; GONZALEZ DE ASPURU, S. eta CERRAJERIA, J. I. (1988).- *Itinerarios ecológicos de Alava*. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saila, 110 or.
- EGUILUZ, L.; LLANOS, H. y ULIBARRI, M. A. (1983).- "El substrato rocoso elemento activo". Alava en sus manos, (1. liburukia) 105.-134. or.
- EGUILUZ, L. eta LLANOS, H. (1988).- "Aspectos hidrogeológicos del diapiro de Salinas de Añana (Alava)". Actas II Congreso geológico de España, 2. liburukia, 383-386 or.
- EGUILUZ, L. eta LLANOS, H. (1988).- "El diapiro de Salinas de Añana: Un ejemplo de ascenso diapírico modificado por esfuerzos cizallantes". Actas II Congreso geológico.